

Amerikaren "aurkikuntza": astindu galanta ekologiari

Tomasa Susaeta


Zorioneko V. mendeurrena ganean dugu. Espainiako komunikabideetatik egunero gogorarazten digute Hegoaldeko euskaldunoi. Amerika "aurkitzea" eta "konkista" haren alde ilunak, gehiegikeriak eta gainerako "keria" guztiak eztitzearren "bi munduen elkar topatzea", "bi kulturen elkar hartzea" eta antzeko estalgarriz jantzita saltzen digute basakeria hura. Baina Amerikaren "aurkikuntzak", bi mundu eta bi kulturen arteko talka bortitza izateaz gainera, ondorio ekologiko izugarriak izan zituen.

Badakigu Kristobal Kolon Amerika "aurkitu" zuen lehena ez zela izan. Euskal arrantzaleak askoz lehenago iritsiak ziren Iparramerikako kostaldeetara. Baina arrantzaleak ez ziren konkistatzaile. Eta euskaldunak baino lehenago ere, orain dela mila urte inguru, bikingoek Ameriketaraino bidaiatu ohi zuten (horregatik eskandinaviarrek bostgarren mendeurrenari farre egin eta, bostgarren barik, hamargarrena ospatu behar dela diote). Baina Kristobal Kolon izan zen aurkikuntzaren dimentsio politikoaz jabetu eta berria Europa osora zabaldu zuena.

Dena den, argi izan dezagun, Amerika ez da "Mundu Berria". 1492.eko urriaren 12an Kolon San Salvador irlan lehorreratu zenean, Amerika Europa bezain zaharra

zen. Eta Europak eskaintzeko adina zuen berak Europari eskaintzeko. Benetako Mundu Berria harez geroztik amerikarrek eta gainerakook bizi duguna da. Izan ere, milaka urtetan elkarren berririk gabeko bi kontinenteen arteko tupusetetik sortutako ondorioak inoizko handienak izan dira zibilizazioaren historian.

Ondorioetako batzuk, ikusiko dugun lez, onuragarri izanik ere, beste batzuk oso kaltegarri izan ziren. Konkistatzaileek ekologiaren aurkako bi bekatu nagusi egin zituzten: Europarrek Amerikako herriak ustiatu eta menperatu beharreko pizti eta aberetzat hartu zituzten eta ez maila bereko gizakitzat; europarrona bezain kultura



Patata, jatorriz, Peruko goi-lautadetako landarea da. Gaur egun mundu osoan produzitzen da.



zahar eta aberatsa zuten gizakitzat, alegia. Bestalde, Amerikako ingurunearen hauskortasunari ez zioten erreparatu. Ondorioz, naturak milaka mendetan sortutakoa bost mendetan ia erabat suntsitu dugu europar zibilizatuok.

Kontinente "berriaren" eta Europaren (gehi Afrika eta Asiaren) arteko elkartrukea 1493.ean hasi zen, Kolonen bigarren bidaiarekin. Bidaia hark, hamazazpi untzitan, 1.500 bat gizonezko, zenbait emakumezko, zaldiak, behiak, zerriak, oiloak, garia, garagarra, bestelako haziak eta azukre-kanabera lehorreratu zituen Haitiko hondartzetan. Elkartruke hartan lau talde nagusi bereiztuko ditugu: landareak, animaliak, gizakiak eta gaixotasunak.

Landareak

Landare jangarritan, garrantziari bagagozkio, Amerikaren aldera egiten du balantzak, zalan-zarik gabe. Hona hemen datuak:



Artoaren jainko gaztea (Maien jainkoa, VI-VIII. mendekoa, Hondurasen aurkitua. Basaltozkoa da). Orrazkerak artoaren hazkuntza adierazten du.


Europarrek azukre-kanabera, labore nagusiak (garia, garagarra, ...), mahatsondoa, tipula, laranja, madaria, etab. eraman zituzten. Amerikatik indabak (indaba = indietako baba), mandioka, juka, kakahuetea, eta, batez ere, kakaoa, tomatea, patata eta artoa. Horiek gabe, gaur egun tomate-saltsarik gabeko Italia eta txokolaterik gabeko Suitza izango genuke eta gure tabernetan ez litzateke patata-tortillazko pintxorik izango. Pentsaezina, ezta?

Patata Peruko goi-lautadetako landarea da eta poliki-poliki hedatu zen Europan. Dirudenez, Europan patata ezagutu zuen lehen herrietakoa Euskal Herria izan zen. XVI. mendearen amaiera aldera iritsi bide zen gure kostaldeetara. Irlandara geroago iritsi zen, XVII. mendearen erdialdera, eta handik gutxira irlandarren elikagai oinarritzkoen eta nagusi bilakatu zen. Europako erdialdera XVII. mendearen amaieran baino ez zen iritsi. Txinara ere XVII. mendean iritsi zen.

AZUKRE-KANABERAK EUROPA GOZATU, AMERIKA ETA AFRIKA MIKAZTU

Azukre-kanabera Asian eta Afrikako zenbait tokitan landatzen zen (Txinan eta Kanarietan adibidez) Ameriketara iritsi aurretik baina, produkzioa txikia zen eta ez zuen garrantzi handirik. Azukrea oso garestia zen. Haitin landatutako lehenengo kanabera-sailek uzta ezinhobea eman zuten eta berehala zabaldu ziren Kuba, Puerto Rico, Jamaika eta Brasileran. Baso tropikaleko milaka hektarea goldatu ziren kanabera landatzeko.

Lurra gertatu, landatu, jorrratu, bildu, zukua atera eta azukre kristalizatua eta gainerako azpiproduktuak prestatu ahal izateko, lan esku ugari behar zen. Jatorrizko amerikarrak, amerindiarrek, behartu



zituzten langintza horretara. Baina Europatik eramandako gaixotasunek (bartzangak, tifusak, hazikurriek, elgorriak, etab.ek) jatorrizko populazioaren % 90 inguru akatu zuten urte gutxiaren buruan. Orduan, ordezkatzeko, Afrikako beltzak eraman zituzten esklabu.

Ordurarte produktu garestia zen azukrea, arras merkatu eta industria garrantzitsu bilakatu zen. XIX. mendearen hasieran erremolatxatik azukrea lortzeko prozedura industriala aurkitu zenean, kanabera-sail gehienak pixkanaka-pixkanaka desagertu egin ziren.

dukzioari so egitea baino ez dago: 1986.ean, oinarrikoentzat hartu ohi diren gari- eta arroz-produkzioa batera 1.000 milioi tonakoa izan zen; urte berean, arto- eta patata-produkzioa batera 788 milioi tonara iritsi zen.

Animaliak

Animaliatan, ordea, Amerikaren ekarpena urri da. Indioilarra (indioilarra = indietako oilarra) da etxekotu zaigun animalia bakarra. Ameriketako faunaren gainerako abere eta animaliak, hala nola llama, guanakoa edo kondorra, ez dira beren sorlekutik atera.

Aitzitik, Europatik Ameriketara "migratutako" animalien zerrenda luzea da eta handia haien eragina. Izan ere, far-westeko filmetako indiarrek edo Argentinako gautxoak zaldirik gabe gaitz da irudikatzen. Alabaina, zaldia erabat ezezaguna (areago, pentsaezina) zen indiarrentzat. Zalduna eta zaldia, biak bat zirela pentsatu ohi zuten indiarrek konkistatzaileak lehenengo aldiz zaldi gainean ikusita.

Zaldia ezin hobeki egokitu zen Hego eta Iparramerikako belardi zabaletara eta XVII. mendearen hasieratik indiarren bizimodua biziki aldarazi zuen. Siux eta komancheak, adibidez, herri nekazari seminomada ziren, baina, zaldiari esker, bisonte-ehiztari nomada bilakatu ziren, bisonte-talde migratzaileei jarraitzen zitzaizkielarik.

Europatik iritsitako asto, ardi, ahuntz eta zerriak ere ongi egokitu ziren kontinente berrira eta jatorrizko espezieekin batera elikaiturri eta lanindar izan ziren, eta dira,

Patata-landarea azkar hazten da, ez du lorzoru- eta klima-baldintza estuegirik behar eta, baldintza horiek betetzen dituzten artean, hektareako kalori kopururik handiena ematen duen landarea da. Jatorri amerikarreko landareek gaur egun gure elikaduran duten garrantziak ohartzeko, munduko pro-

Europatik Ameriketara eramandako zerriak izugarri ugaltu ziren eta, haietako batzuk ihes egin eta basazeri bilakaturik, kalte handiak egin zituzten jatorrizko fauna eta landaredian.


X. Gofñi



amerikarrentzat. Hala ere, zerriek kontinentean egindako kaltea ez da ahazteko modukoa. Ugalkortasun handikoak (bizpahiru umaldi urtean eta zortzi-hamar zerrikume umaldiko) eta orojaleak direnez, gizakien menpetik ihes egindako basazerriek era guztietako animalia eta landareak jaten zituzten. Mende bat eskas aski izan zuten zerriek Amerika osoa kolonizatzeke, Iparramerikako Eskozia Berritik Hegoamerikako Suaren Lurralde-raino. Konpon ezinezko kalteak eragin zituzten bertako fauna eta landaredian.

E Gizakiak

kologiaren aldetik aztertuta, Amerika "aurkitzeak" ordu-rarteko astindurik latzena izan zen giza espeziearentzat. Arraza bat, zuria, nagusi agertu zen mundu osoan. Gainerako arrazek haren menpe geratu eta haren izugarrikeriak pairatu behar izan zituzten. Ameriketako herri asko desagertu egin zen. Genozidioa izan zen. Amerindiarrak esklabu hartuta, lanera behartu zituzten (azukre-kanaberan hasieran, kotoi eta tabakoan ondoren). Lan-baldintzek eta gaixotasunek jatorrizko populazioa ia desagertarazi egin zuten. Ordezkoa Afrikako populazio beltza izan zen. Abereak bailiran, afrikarrek samaldaka eraman zituzten Ameriketara esklabu-merkatariak.



Kolon Ameriketara iritsi eta handik 13 urtera, 1505.ean, iritsi ziren lehen esklabu beltzak. Esklabu-merkatua izugarri zabaldu zen eta urte gutxiren buruan 10 milioi

beltz erauzi zituzten Afrikatik Ameriketara lan egiteko. Azukre-kanaberaren plantazioetan esklabuen hilkortasun-tasa ikaragarria zen: batezbeste esklabu bat hiltzen zen

Afrikatik Ameriketara eramandako esklabuek erabat ordezkatu zuten Karibeko jatorrizko populazioa. Gaur egun, Karibeko zenbait tokitan, populazio beltza gehiengoa da. Esklabu beltz horien jatorrizko kulturak musikan eta erlijioan baino ez du iraun; vudu erritoetan batez ere. Haitiko vudu erritoaren arabera, ur-jauzietako mamuek gaitz izpiritualak sendatzen dituzte eta haien urek gorputza garbitu egiten dute.



Europarrek Ameriketako herriak ustiatu eta menperatu beharreko pizti eta aberetzat hartu zituzten eta ez maila bereko gizakitzat (Penn eta indiarren arteko ituna, Benjamin West pintorearen obra, 1771).



ekoiztutako tona azukre bakoitze-ko. Karibeko jatorrizko populazioa erabat ordezkatu du Afrikatik iritsitako populazio beltzak.

Gaixotasuna atzera-aurrera

Konkistatzaileek eragindako aldaketa guztiak txiki gelditzen dira epidemiak eragindako kalte beldurgarrien ondoren. Konkistatzaileak aise samar nagusitu ziren, baina hori ez zatekeen hain erraz gertatuko tifusak, hazikurriek eta, batez ere baztangak Ertamerika eta Hegoamerikako jatorrizko inperio sendoak pitzatu eta ahuldu izan ez balituzte.

Baztanga gaixotasun endemikoa zen Europan. Agi denez, VI. mendean iritsi zen Europara musulmanen inbasioen bidez eta pixkanaka hedatuz joan zen. XVIII. mendean europarren % 10 baztangak jota hiltzen omen zen. Dena den, VII. mendeaz gero Europako populazioak nolabaiteko inmunitatea garatua zuen.

Badirudi Juan Nepomuceno untzimutila izan zela 1492.ean baztanga berekin Ameriketara eraman zuten lehena. Epidemia zitzu bizian zabaldu zen amerindiarren artean. 1519-20 bitartean ehundaka mila azteka hil zituen gaixotasunak, Hernan Cortés-en konkista erraztuz. 1525.ean inken lurraldera iritsi zen epidemia: Inka Handia hil

eta armada ahuldu egin zuen. Pizarro 1532.ean Peruko goi-lautadetara bigarren aldiz iritsi zenean, baztangak txikitutako herri mendera erraza aurkitu zuen.

Epidemia oso azkar zabaldu zen. Kolon Karibera helduz geroztik, mende bat aski izan zen jatorrizko populazio-kopurua % 10era murrizteko.

Europarrek zanpatua, ahuldua, bortxatua eta ustiatua izanik ere, Amerikaren mendekua laster zabaldu zen Europara. Konkistatzaileek Ameriketako urre eta zilarrak batera, sifilia ekarri zuten. Baztangak Ertamerikako zibilizazioa akatu zuen; sifiliak ez zuen Europako zibilizazioa hondoratu, baina haren eragin eta ondorioak latzak izan ziren. XV. mendearen bukaeran iritsi zen sifilia Espainiara eta Italiako gerren bidez azkar hedatu zen Europa osora. Zahar nahiz gazte, aberats zein pobre, denak berdindu zituen sifiliak. Adibidez, Frantziako Karlos VIII.a 1498.ean hil zen sifiliak jota, 28 urte zituelarik.

Gaixotasun "italiarra", "frantseza", "espainola", ... europarrek elkarri egozten zioten gaitzaren jatorria. Gure egunotan HIESak (Hartutako Imuno-Eskasiaren Sindromeak) gizartean nolako errefusa sortu duen eta HIESak jotakoek nolako beldur irrazionala eragiten duten ikusirik, XVI. mendean sifiliak gizarte-ohiturak eta garai hartako kultur giroa nola astindu zituen erraz da antzematen. Ordurarte, bekatuaren eta Jainkoaren zigorraren arteko harremanaren izaera metafisikoa zen (ifernua), baina bapatean gauzatu egin zen. Luxuriak, zornea jariatzen zuten oilaur okaztagarriez josten zituen bekatarien gorputzak. "Jainkoaren zigorra" izena eman zioten. Bainu-etxeak itxi egin ziren eta Inkisizioak, jezarpinak, erlijio-gerrek eta profetismoak Europa osoa zeharkatu zuten. Bitartean, Atlantiar Ozeanoaz bestaldean, Amerika menperatuak irri egiten zuen.

Ehundaka mila urtez elkarren berririk gabe garatu diren bi munduen arteko topaketa gizateriaren historian behin bakarrik gertatu da. Gizarte desberdinen arteko harremanak pixkanaka gertatu ohi dira espazio eta denboran. 1492.ekoa ordea, Ameriketako herrientzat kultur danbateko itzela izan zen; erabateko eztanda. Orduko gehiegikerietatik ikasiko al dugu!